

2018 KONTRATAZIO-ZERRENDAK INFORMAZIO-OHARRA

Interesdunek 2018 kontratazio-zerrendetan zer egoeratan dauden egiaztatu ahal izatea errazteko, informazio-ohar haur argitaratu dugu, Osakidetzaren aldi baterako kontratazio-zerrenden kudeaketa eta prestakuntza arautzen dituen erabakiari jarraiki (Osakidetza-EOZ ente publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakia). (2011ko ekainaren 6ko EHAA, 106. zenbakia).

Argitalpena:

2019ko maiatzaren 7an argitaratu ziren web orrian 1 eta 2 Lehenetasunetako behin-behineko kontratazio-zerrenda eguneratuak, 2014-15 EPEan deitutako kategoriei dagokienez, modalitate hauetan: lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda (LMATko FE Familiako medikuen eta LMATko FE Pediatriako medikuen izan ezik). Hemen aurki daitezke:

<https://lc2018.osakidetza.eus/aLC/cas/index.jsp> -> hizkuntza -> zerrendak -> Behin-behineko zerrendak -> kategorioa -> 1 lehenetasuna/2 lehenetasuna

1 lehenetasuneko zerrendetan onartua izateko baldintzak:

- 1.- Kasuan kasuko kategoriako 2014-15 oposizio-fasea gaindituta izatea.
- 2.- Izena epe barruan eman izatea (2018ko urriaren 5etik 31ra).
- 3.- 2014-15 EPEko oinarri orokor eta espezifikoen aurreikusitako baldintzak betetzea, hala nola titulua, it-txartelak... kasuan kasuko kategoriaren arabera.

1 lehenetasuneko zerrendetako puntuazioa:

Argitu nahi da Kontratazio-akordioaren 1.1 Laugarren Atalean xedatutakoaren arabera Zerrenda berriak egitean puntuazioa kalkulatzeko 2014-15 EPEan jarraian aipatzen diren atalean lortutako puntuari Osakidetzako lan-eskarmentu eguneratuaren puntuazioa gehituko zaiela, hau da, 2014-15 EPEan izena emateko azken egunetik 2018/12/31ra arteko aldiari dagokiona:

- **Oposizioaldia** (azterketaren nota).
- **Lan-esperientzia** (EPEko lan-esperientziaren puntuazioa + Osakidetzako esperientzia eguneratua 2015/07/04tik 2018/12/31ra arte)
- **Euskara.** Euskararen atalean, euskarazko hizkuntza-eskakizunak aurkezteko epearen azken egunera arte lortu eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizun guztiak gehituta daude (epea: 2019ko urtarrilaren 21etik otsailaren 1era).

2 lehenetasuneko zerrendetan onartua izateko baldintzak:

- 1.- Kasuan kasuko kategoriako 2014-15 oposizio-fasea gaindituta ez izatea.
- 2.- Izena epe barruan eman izatea (2018ko urriaren 5etik 31ra).
- 3.- 2014-15 EPEko oinarri orokor eta espezifikoen aurreikusitako baldintzak betetzea, hala nola titulua, it-txartelak... kasuan kasuko kategoriaren arabera.

2 lehenetasuneko zerrendetako puntuazioa:

- **Oposizioaldia** (EPEko nota birkalkulatuta).
- **Lan-esperientzia:** Lan-esperientziaren puntuazioa honela gehitu da: 2015/07/03ra arteko esperientzia + Osakidetzako esperientzia eguneratua 2018/12/31ra arte.
Lan-esperientziaren atalean gehienez lor daitekeen balioa da Kontratazio-akordioan lehenetasun honetarako ezarrita dagoena: 60 puntu.
Hilabeteko balioa 2014-15 EPEkoa da, gehienez 60 puntu lortu ahal izateko moduan birkalkulatuta.

- **Euskara.** Euskararen atalean, euskarazko hizkuntza-eskakizunak aurkezteko epearen azken egunera arte lortu eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizun guztiak gehituta daude (epea: 2019ko urtarrilaren 21etik otsailaren 1era).

Kategoria	2018 KZ- 1 LEHENTASUNA		2018 KZ- 2 LEHENTASUNA	
	Gehienez	Hilab. balioa	Gehienez	Hilab. balioa
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	55	0,20	60	0,2182
ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA	55	0,20		0,2182
ZELADOREA	80	0,30		0,2250
ERIZAINZA	45	0,18		0,2400
FISIOTERAPEUTA	45	0,18		0,2400
EMAGINA	45	0,18		0,2400
LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	55	0,30		0,3273

	2018 KZ- 1 LEHENTASUNA	2018 KZ- 2 LEHENTASUNA
1. HE	9	8
2. HE	18	16
3. HE	27	24

Hurrenkera-zenbakia:

Osasun-arlo edo -zentro bakoitzean lortutako posizioa da, kontuan hartuz hutsik dauden lanpostuen zerrenda ala ordezkapenen zerrenda den.

Zerrenden indarraldia:

Zerrenda bakoitza indarrean sartuko da behin-behineko zerrendak web orrian argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 16an